

Hotz ala bero?



Duna, Marikalanbreren lagun berria, urduri dago; Marikalanbrek esperimendu bat egingo dutela esan dio! Zer ote da?

–Urekin jolastu nahi? –galdetu dio Marikalanbrek.

–Bai. Ikustea beharrezkoa ez bada behintzat –erantzun dio Dunak–.

Izan ere, Duna itsua da.

–Ez, lasai. Jolas hau egiteko berdin du itsua izatea, begiak ixtea edo ilunpetan egotea.



Epela, hotz eta bero

Larruazalaren bidez, gai gara zerbait hotza ala beroa dagoen jakiteko. Baina, zenbateraino da zehatza sentsazio hori? Beti sumatzen dugu hotza hotz eta beroa bero?

Materiala

Hiru ontzi, eskua sartzeko modukoak, urez beteta: bat, ur berorarekin (baina kontuz, ez dezala erre); beste bat, ur hotz-hotzarekin; eta, azkena, ur epelarekin (giro-tenperaturan).



Zer egin?

Sartu esku bat ur hotzetan, eta egon horrela pixka batean (10 arte zenbatzen duzun bitartean, adibidez). Gero, atera eskua eta sartu berehala ur epela duen ontzian. Beroa al dago?

Jarraian, sartu eskua ur beroa duen ontzia, eta utzi hor pixka batean (zenbatu beste 10). Denbora hori igarotakoan, atera eskua, eta sartu ur epeletan. Orain hotza dago!

Zer gertatu da?

Gorputza ingurura ohitzen da. Hala, ur hotzetan sartzean eskua, denborarekin eskua ohitu egiten da hotzera, eta ur epela beroa iruditzen zaigu. Ur berotan edukitakoan, ohitu, eta ur epela hotza irudituko zaigu. Antzekoa gertatzen da beste zentzumen batzuekin ere. Adibidez, usain sarkorra dagoen leku batera sartzean, hasieran usaina adituko dugu (eta gerta liteke gustuko ez izatea), baina, denborarekin, ohitu egiten gara.



Lasaituta, Marikalanbreren azalpenak entzun ditu, adi-adi:

–Hiru ontzi jarri ditut mahai-gainean: bat ur beroz betea, bestea ur hotzarekin eta hirugarrena ur epelarekin.

Gero, eskua emateko eskatu dio Dunari, eta ur hotzetan sartu dio. Eskua ur horretan pixka batean eduki ondoren, atera eta ur epeleko ontzian sartu dio.

–Zer sentitzen duzu? –galdetu dio Marikalanbrek.
 –Urak erre egiten duela –erantzun dio Dunak.
 Jarraian, Dunaren eskua hartu, eta ur berotan sartu
 dio. Hor pixka batean eduki, eta ur epeletan sartu dio
 berriro.
 –Eta orain?
 –Hotz-hotza dago! –esan dio Dunak.
 –Ba lehen beroa iruditu zaizun ur berbera da –esan
 dio Marikalanbrek, irribarrez.



Dunari kosta zaio sinestea. Marikalanbrek azaldu dio zer gertatu den: larruzalak ziria sartu dio! Hala ere, pozik joan da etxera; afal ondoren, aitari egingo dio esperimientua. Baietz harritu!